


# ANBOTOKO HEGOALDEKO HORMA JOSU LARREA BIDEA

## TESTU ETA ARGAZKIAK



Aitor Montes Lasarte  
(Basauri, 1972)

Aramaion familia medikua da Aitor eta Basaurin jaio arren, gaur egun Galdakaon bizi da. 1988an hasi zen eskalatzen, Atxarten eta Piriniotan hamaika eskalada egin ditu, eta bide bakan batzuk zabaldu Oriolen, Mugarran edo Udalatxen. 2011n Gantzagako atxan istripu larria izan zuen.

Bigarren luzera. Plaka etzana (IV) erlaitzeraino

Anboto mendi malkartsua da, ederra, Bizkaiko mendien artean ospetsuenetakoa eta beharbada baloratuena. Jende gehienak bide arruntek igotzen du, Urkiolatik alegia. Beste batzuk ertzak eskalatzen dituzte, hala nola Frailia, Azkilar edo ipar-ekialdeko ertza, eta eskalatzailerak petoek ekialdeko horma eskalatzen dute. Baina, badira hamaika aukera Anboto igotzeko, baita eskalatzeko ere. Begien aurrean agertzen zaizkigunak eta ikusten ez ditugunak. Gauzak horrela, bihurriak izanik, gure neurriko bide bat zabaltzea erabaki genuen, non eta errazena omen den hegoaldeko isurian. Abilena, bide zuzena dio esaera zaharrak. Anbotoko hegoaldeko bide zuzena aukeratu genuen.





Anbotu Oletatik. Hegoaldeko horma, bide zuzena

Bidea, eskaladaz harago, erreibindikapena ere bada. Bide berriak zabaltzeko aukera egon badagoela aldarrikatu nahi dugu, non eta hemen, urrutira joan gabe, etxean bertan. Anbotu mendi ezagunenetakoa omen da, hainbat artikulu idatzi dira bere gainean eta liburu askotan agertzen da, baina oraindik orain hamaika aukera eskaintzen ditu.

Bestetik, mendia guztiona dela adierazi nahi dugu eta edozeinek egin dezakeela bere neurriko ekarpena, beti ere bere gaitasunen arabera. Gogoak urtean ere egin dezake bidea. Kasu honetan eskalada erraza da, baina eredu tradizionalari jarraitzen diona: eskalada askea, ia hornitu gabe utzitakoa. Etxean egin dako iltze bat baino ez duzue topatuko. Bidea zabaldu dugunok ere gure mugak dauzkagu: gutako bat aitona da, erretiroa hartu duena, minbiziak jota dagoena. Besteak (neronek), aita izanik, ez dauka eskalatzeko astirik eta eskuineko eskua erabat mazpilduta dauka istripu baten ondorioz, hatzamar bat eta eskuturra mugitu ezinik; horregatik hain zuzen ere ezin izan nuen iltzea atera. Bizitzaren estekek bihurtzeko gaituzte etengabe, baina bihurtzeari aurre egiteko moduak badaude. Kasu honetan, Anbotoko malda bihurria zuzenean gaintuz eskalada garbi eta askean. Soin zaharrak, bide berriak.



Bidea behetik ikusita





Azken horma. Krokisa

Azkenik, bidea ere omenaldia da, esker ona. Estatusun egoeran lagundu gaituzten horiei eskerrak emateko modua. Eskalatzai-leontzat eskertzeko biderik egokiena aukeratuz: lagunari bide bat eskaini. Bide hau Josu Larrea bidelagunaren omenez da.

## BIDEAREN DESKRIBAPENA

Urkiolatik Anbotorako bide arrunta jarraitu. Gailurrerako bidea era bihurrian maldan gora jartzen denean joan eskumalde-ara, pagoen eta haitzen arteko mugan. Urkiolatik etorrita ikusten diren azken pagoetan hasten da bidea. Isolaturik dagoen haitz txiki batek erakusten du bidea. Igo zuzenean, lehenengo horma-txoa topatu arte (III-); arroka ona, primerako heldulekuekin, baina betiere erortzeko arriskua egonda. Hortik aurrera, plaka etzanak jarraituz edo eskuen laguntzaz ibiliz gora egin (oro har I, bigarren hormatxo batean II), azken hormara heldu arte. Hauxe da gakoa, eta bide berriaren funtsa: 70 bat metrotako horma bertikala, bi luzetakoa. Tximinia belartsu baten eskumaldean dagoen hor-

ma labartsua da. Lehen luzean horma bertikala jarraitu, betiere ezkerrean joz (III). Erlaitz belartsu batean kokatzen da lehenengo bilgunea, non etxean egindako iltze uztaidun bat topa daiteke. Gora egiteko bi aukera daude: eskumatik jo, arroka-zubi bat erabiliz (IV-/IV) edo aurrez-aurre daukagun plaka jarraitu (IV/IV+), hurrengo erlaitzeraino. Bigarren aukera estetikoa da oso, baina ez dago ekipatzerik, eta beraz soka-buruarentzat arrisksua izan daiteke. Bigarren erlaitzetik gora dagoen tximinia edo die-droa jarraitu, bertikala baina helduleku bikainez hornitua (III), eta enpotradoreekin aseguratzeko erraza. Bidea gailurretik oso gertu amaitzen da.

### DATUAK

**ZAILTASUNA:** AD (IV), 70m

**DATA:** 2014ko abuztuak 7.

**ESKALATZAILEAK:** Berna eta Aitor Montes.

**MATERIALA:** soka, kaskoa, zintak eta enpotradoreak



